



Argazkiak: Louisa GOULIAMAK-Bulent KILIC-Alexander KHUDOTEPLY-Vasily MAXIMOV-Anatolii STEPANOV-Dimitar DILKOFF / AFP



IKUSMIRA

UKRAINAN, MATXINADATIK GERRA HOTZERA

2013ko amaieran hasi zen, Ukrainako hiriburuko Maidan plazan, Gobernuaren aurkako matxina-da. Mendebaldeko potentziek, AEBen gidaritzapean, esku hartu eta matxinada estatu-kolpe bihurtu zen. Errusiak, erantzun gisa, Krimea berreskuratu eta ekialdeko Donbassen Kieveko exe-kutibo berriaren aurkako matxinoei lagundu zien. Urte baten buruan, oligarkek jaun eta jabe ja-rraitzen dute. Kieven, Poroshenko, txokolateen magnatea da errege. Donbassen Ahmetov oligar-kak (Shaktar Donetsk futbol taldearen jabea) agintzen du. Mendebaldearen eta Errusiaren artean beste gerra hotz bat sumatzen da, arriskutsua oso. Moskuren gas-gerrari petrolio-gerrare-kin erantzunez, Errusia amildegira begira jarri dute. Hori da gerra hotza. Gerra beroa Donbasseko biztanleek pairatzen dute. Militarrek eta boluntarioek ere bai, baina hori euren aukera da. Ez zibi-lena. Negu gorrian, Kievek diru iturri guztiak eten dizkie. Ukrainan bertan desplazatu edo Erru-siara ihes egindakoak milioi bat dira. Hildakoak, 5.000 inguru. Europan bertan. XXI. mendean.

Dabid LAZKANOITURBURU

